

PuLunPe

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA

176. Zenbakia



JBAJA · Kirmen Uribe

Garai batean ibaia zen hemen

baldosak eta bankuak dauden tokian.

Dozena bat ibai baino gehiago daude hiriaren azpian,

zaharrenei kasu eginez gero.

Orain langile auzo bateko plaza besterik ez da.

Eta hiru makal dira ibaiak hor

azpian jarraitzen duen seinale bakar.

Denok dugu barruan uhola dakarren ibai estali bat.

Ez badira beldurrak, damuak dira.

Ez badira zalantzak, ezinak.

Mendebaleko haizeak astintzen ditu makalak.

Nekez egiten du oinez jendeak.

Laugarren pisuan emakume nagusi bat

leihotik arropak botatzen ari da:

alkandora beltza bota du eta gona kuadro duna

eta zetazko zapi horia eta galtzerdiak

eta herritik iritsi zen neguko egun hartan

soinean zeramatzan txarolezko zapata zuribeltzak.

Hegabera izoztuak ematen zuten bere oinek elurretan.

Haurrak arropen atzetik joan dira arineketan.

Ezkontzako soinekoa atera du azkenik,

makal batean pausatu da baldar,

txori pisuegi bat balitz bezala.

Zarata handi bat entzun da. Izutu egin dira oinezkoak.

Haizeak errotik atera du makaletako bat.

Zuhaitzaren erroek emakume nagusi baten eskua dirudite,

beste esku batek noiz laztanduko zain.

Euskaraldia

11 egun euskaraz

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

Zer egin dezakegu euskal hiztunok euskararen erabilera areagotzeko?

Galderak hainbat erantzun ditu, baina, guk, hizkuntza ohiturak astindu eta ohiko harremanetan euskara gehiago erabiltzeko ariketa bat proposatzen dizuegu:

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, euskaraz hitz egiten edo ulertzen dugun guztion artean egin dezagun euskaraz. Euskal Herri osoan eta elkarrekin arituta, gure egunerokoan eragin genezake.

Nola egingo dugu?

Ondoko bi roletako bat har dezagun 11 egunez:

Ahobizi: Ulertzen duenari euskaraz egingo diot, hark erdaraz erantzun arren. Ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo diet.

Belarriprest: Egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut.



Aroztegi, Atetz



Santurbe, Odieta



Lizaso, Ultzama

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan.

Koordinatzaileak: Lur Gil Rey eta Itziar Perez Argomaniz

Maketazioa: Lur Gil Rey

Tirada 1.600 ale | Inprimategia: Gertu

Lege gordailua: NA 721/93

Inprimategira Irailaren leian bidalia

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

HORMARA

11 EGUN EUSKARAZ

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

EUSKARALDIA



AHOBIZI edo BELARRIPREST?

Euskaraldian parte hartu nahi dut.
Baina zein rol aukeratuko dut?
Belarriprest? Ahobizi?

1 Norbaitek euskaraz egiten dizunean, ulertzen al diozu?

BAI

EZ: Euskaraldia ez da zuk parte hartzeko egokia. Ulermena landu dezakezu eta hurrengoan parte hartu. Hala ere, aurten giroa sortzen eta errazten lagundu dezakezu.

2 Prest al zaude jendeak zuri euskaraz egiteko?
Ondo hartuko al zenuke dakiten guztiek zuri euskaraz egitea?

BAI


EZ: Euskaraldia ez da zuk parte hartzeko egokia

3 Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean ulertzen duten guztiekin euskaraz soilik egiteko prest al zaude? Ezagunekin zein ezezagunekin, edonon eta edonoiz, batzuetan solaskideak erdaraz erantzun arren?

BAI



EZ





PLAZAOLAKO I. Artisanazoka

BIDE BERDEAK BATZEN GAITU
LA VÍA VERDE NOS UNE

Irailak 15 de Septiembre

Plazaolako bide berdearen Artisanazoka
-Animazioa-
(Txutku trená,...)

Zeramikak, bitxiak, ezta, patenk, zapatak, kremak, taloak, arropa, ehun naturalak, makramea, kakoratz-lana, etab...

TALERRAK:
16.00: Talo tailerra [Saralegi taloak] -Euskaraz-
17.00: Iheko zintak [Fanny Alonso] -Erderez-
18.00: Ehunezko mandalak [Telarista Urbana] -Erderez

Feria de artesanía de la vía verde del Plazaola
-Animación-
(Tren txutku,...)

Ceramica, joyas, miel, patés, zapatos, cremas, talos, ropa, tejidos naturales, macramé, ganchillo, etc...

TALLERES:
16.00: Taller de talos [Saralegi taloak] -En euskera-
17.00: Cintas para el pelo [Fanny Alonso] -En castellano-
18.00: Mandalas textiles [Telarista Urbana] -En castellano-

**Tokia / Lugar: ANDOAIN -Goikoplaza-
Ordua / Horario: 10:00-14:00 / 16:00-19:00**

AYUNTAMIENTO DE ODIETA
WWW.PLAZOLA.ORG edo WWW.ANDOAIN.EUS
PLAZOLA

Coro In Tempore Abesbatza

Coral San José Abesbatza
PAMPLONA - IRUÑA

con Conjunto Instrumental / Talde Instrumentalarekin

Música para interactuar con la naturaleza

Naturarekin bat aritzeko musika

Domingo, 9 de septiembre de 2018
2017ko irailaren 9an, Igandea
12:30
Ermita de San Urbano - Santurbeko Baseliza
Gaskue (Odieta)

Ayuntamiento de Odieta Odietako Udala
Ayuntamiento de Odieta
mecná
Gobierno de Navarra

2018-19 IKASTAROAK: Matrikula epea: 2018ko abuztuaren 28tik irailaren 5era.

Ikastaroa	Mailak	Orduetegiak	Oharra
4-5 h/asteen Zubiarten 2 egun	A1, A1+, A2, B1, B2, C1, EGA	09:15-11:45, 17:00-19:30 19:30-21:30	Astelehen+asteazkena EDO Astearte+osteguna.
Mintza B2 Zubiarten	B2	09:15-11:15	Astearte+osteguna.
Kanpoko taldeak Antsoain, Orkolen	A1, A2, B1, B2	17:00-19:00	Astearte eta osteguna.
6 h/asteen "Guraso taldeak" ikastetxeetan 3 egun	A1, A2, B1, B2	15:00-16:30	Astelehen, astearte, osteguna.
8-10 h/asteen Zubiarten 4 egun	B2	09:15-11:45	Astelehen, astearte, asteazken eta osteguna.
Auzo-ikaskuntza Zubiarten egun 1	A1, A2, B1, B2, C1, EGA	17:00-19:00 19:00-21:00	4 ordu on-line + 2 ordu mintza A1 goizean ere bai

ZUBIARTE
Euskaltegi Publikoa

Navarroako Gobernua Gobierno de Navarra

Zubiarte 13 • 31520 Lharte (Nafarroa) • ☎ 848 431 010
euzubia@educacion.navarra.es

<http://euskaltegi.educacion.navarra.es/web/>

"Ostiral kulturalak antolatzea gustatuko litzaizuke? Kontzertuak, hitzakdiak, antzerkiak...
ZATZO DINAMIZAZIO BATZORDERA!
Hilabeteko lehengo ASTEARTEETAN biltzen gara arratsaldeko 17:00etan gizarte etxean. Anima zaitez!
Email bidez informazioa jasotzeko: kulturmugi@gmail.com"

Prezioen mantentzeak eta gastuen igoerak ustiategi geroz eta handiagoak izatera bultzatzen ditu abeltzainak

Kontsumitzaileek dendetan ikusten dutena ez bezala, hamarkadetan mantendu da abeltzainei ordaintzen zaien prezioa, haragi eta, batez ere, esnearen truke. Langileria gehiengoak 8 ordurengatik jasotzen duen soldata bera lortzeko, ordu bikoitza sartu behar dituzte. Famili ustiategiak ez dira errentagarriak dagoeneko, eta egin beharreko lan ordu gogorrek uxatu egiten ditu gazteak. Besteak beste, oztopo hauek kooperatibatan batzera eta buru gehiago izatera eraman ditu. Ondorioz, ustiategi kopurua behera doa, euren tamaina handitzen den bitartean.



litikek, ordea, ustiategiak geroz eta gehiago handitzera bultzatzen dituztela baieztatzen du, batez ere 2015ean esne-kuotak ezabatu zitzutenetik. “Esploztazio bakoitzak zuen ekoizpen baimena zen hori, taxien lizentziaren antzera. Kendu zitzutenean prezioak izugarri egin zuten behera, azkenean askotan Madrilgo enpresekin egiten dugu lan, baina zertarako etorriko dira honaino, ondoko ustiategiek ekoizpena bikoiztu ahal baldin badute?”.

Ustiategi handiagoak izatera bultzatuta

Urritzolan dagoen Aldapa Kooperatiban, esate baterako, 5 sozio batu ziren eta esne behien kasuan, 330 buru dituzte. “Gurasoak 30 behiak ateratzen zuten aurrera hiru ume, familia osoa bizi zitekeen horrekin. Baina orain kopurua triplikatu egin behar da gutxienez”, nabarmentzen dute. Izan ere, prezioak 50 urtez mantendu dira, makinariarena handitzen doan bitartean, eta orokorrean gastuek gora egiten dutela. Horregatik, etekinak izateko, ustiategiak handitu behar izan dituzte. Horretarako kooperatiban batu ziren, baita lan gogorrari hobeto aurre egiteko, “Antolakuntza eta bizitzeko modua errexagoa egiteko, modu horretan txandak egiten ahal duzu, asteburuak libratzeko aukera duzu, bakarrik oso zaila da”.

Erripan, Oyarzun Bengoetxea Gorka y Joseba kooperatiban, kalitatea hobetzeraren instalazioak eta makinaria askotan berri behar dela gogorazten dute. Hori ahalik eta gehien optimizatze helburuak, ustiategia handitzera eraman ditu. 240 behi dituzte 4 kideren artean, “Hala ere kopuruan ez dugu hainbeste handitu azken urteotan, behi bakoitzaren ekoizpena handitu dugu”. Merkatu po-

Auzako Oier Villanueva hiru sozios osatutako kooperatiba batean dago, 170 behiekoa. Berarentzat arazoa errelebo faltan ere dago. “Jendeak 8 orduko lana eta gero denbora libre izatea du gustukoa, baina hori gure munduan ez dago, eta jendeak uztea erabakitzen du. Gehiago ordainduko baligute gustorago egongo ginateke? Ba agian ez, gustora gaude, baina... gogorra da”.

Esne behietan ez ezik, haragi behietan ere bai

Hitz egindako guztien artean salbuespena Etxalekuko Martin Aldareguia Igueltzeko ustiategia da. Berak Haragitako behiak ditu, 80, esploztazio txikia mantendu duela-

rik. Aldaregia Igueltz SC Martin y Juana ustiategian aritzen da, eta onartzen du 80 behiek ez dutela nahikoa ematen bi lagunentzat, ez dago bi soldata ateratzerik. “Inbertsio batzuk egin

behar dituzu, instalazioak behar dituzu, gastu batzuk daukazu, eta hori guztia soldata bakarri ateratzeko”.

Esne behietako abeltzainen



Ustiategi erraldoia Sorian

kasuan bezala, prezioak bere horretan utzi dituzte azkeneko hamarkadetan, “Gu duela 30 urteko preziotan ari gara saltzen, eta kontsumitzailea gaur egungo prezioa ari da pagatzen, duela 30 urteko txuletak merkeagoak ziren. Karninzeroek, ordea, esaten dute ez dutela dirurik irabazten, baina konsumidoreak pagatzen du lehenago ordaintzen zuena baino hiru aldiz gehiago”.

Prezioen aferak horrek bestelako ondorioak ere baditu, soldata bakarra izateko besterik ez badu ematen, abeltzain asko bakarrik lan egitera kondenatzen ditu, eta horrek lana oso gogorra bilakatzen du: “nik ez dut astean 5 egun soilik lan egin behar, urteko egun guztietan egiten dut lan, soldata bat baino gehiago emango balu ezberdina izango litzateke, bi lagun artean, bakoitzak bere oporrekin. Orduan jendeak ez du segitzen, ikusten da gero eta guxtiago garelako”.

Ustiategi handitze horretan badago nor edo nor haratago joan nahi duena, izan ere, Sorian 20.000 buruko makroustiategi bat irekiko zutelaren berri eman zen zenbait hedabidetan aurreko urtean. Ez da azkenaldian ezer gehiagorik entzun horri buruz, bali-teke geldirik egotea, baina horrek izango zitekeen eraginaz galde-tuta gehienek kaltegarria izango dela diote.

Hala ere, arazoak asko direla eta ustiategi erraldoia ireki gabe ematen ari direla diote Aldapakoek: “Ez dirudi txikiek horri aurre egiteko aukerarik izango dutenik, baina oraindik ez dute halakorik ireki eta asko ixten ari dira dagoeneko. Azken 7 urteetan beherakada izugarria izan da, beraz hor bakarrik ez dago arazoa”. Erripako Joseba Oyarzunen arabera, oso zaila litzateke horrelako ustiategi-ekin lehiatzea, “Taldea handiei saltzen dionari, merkatu librean aritzen

denari ez datorkio ongi, askoz gehiago kostatzen da erraldoiekin lehiatzea”. Eta iritzi berakoa da Auzako Oier Villanueva, “merkatua esnez inundatzea ez da ona, produkzioaren kontzentrazioa fomentatzen dute eta kaltea izugarria izango da ziur aski, baina horrelakoa da mundua, horrela antolatu dute”.



Bestaz besta pasa zaigu uda

Udaren amaierara iritsi gara, eta gure eskualde guztian bestak ospatu ditugu, eta ospatzen jarraitzen dugu. Izan ere, irailean herri anitzetan izanen ditugu ospakizunak, eta ia urte amaierara arte luzatuko dira, Odietan azaroan izaten baitira bereziki.

Besta luzeak zein laburrak, jendetsuak zein jende gutxikoak, batzuek kirola protagonista, beste batzuek jolasak, eta beste batzuek musika eta dantza. Modu anitz bestak ospatzeko, baina guztietan giro ona nagusi, eta abuztuan, gainera, eguraldia lagun izan dugu.



Zikiroaren prestatzea Urritzolan

Partxis txapelketa berreskuratu zuten Oskozko jaietan

Ostiralean izan zen, 16:30ean, mus txapelketarekin batera, musan trebeak ez direnendako edota atsegin ez dutenendako alternatiba bat izatea izan da helburua. Partxisarekin batera, dardo txapelketa ere izan dute nobedade, honako hau larunbatean 13:30ean egin zuten. Baita, lehenengo aldiz, antzerkia ere antolatu dute: TXU eta TXU

antzezlana, Lorena Arangoa eta Patxi Larrearen eskutik, igande arratsaldean. Baina gauza berriak ez ezik, arrakasta handia duten ohikoak ere egon dira; mariatxiak, esate baterako, edota herri afariak eta dantzaldiak. Gainera, aurreko urteetan etorri ezin izan zuten Orritz dantzariak egon dira herrian. Ohikoa den bezala ostiralean, ordu batean, bota zuten suziria, festei hasiera emateko, eta ondoren paella bazkaria egin zuten. Giro onean

ospatu zuten oskoztarrek festak, uztailaren 27tik 29ra bitarte.

Latanan jokoak eta lehiaketak nagusi

Eguraldia lagun, ekitaldiz beteriko egitaraua prestatu eta gozatu zuten. Besteak beste altxorraren bila jokoak, frontenis eta esku-pilota partidak, mus txapelketa, zinema, musika eta beste hamaika ekimen izan zituzten.



Dantzariak Oskotzen



Ultzamako herrietan jarritako pankarta

Jende ugari Larraintzarko bestetan

Egunez herriko jendea ibili zen festetan, giroa ederra zen, eguraldiak ere lagunduta, eta haurrak pilaka kontatu zitezkeen. Elikagai horiek guztiak batuta, festa giro ederra da emaitza, eta hala izan zen Larraintzarren asteburu osoan zehar. Gauean ere, eguraldia lagun, jende asko hurbildu zen.

Eraso sexisten aurka

Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuek eraso sexisten aurkako pankarta handi bat jarri zuten Larraintzarko ostatuko paretan. "Errespetuzko harremanak gustatzen zaizkigu" irakur zitezkeen bertan, eta soinean jartzeko esku moreak banatu zituzten. Ultzamako herri guztietan jarri zuten pankarta hurrengo asteburuetan.

Sabela betea eta giro alaiean ospatu zituzten bestak Urritzola-Galainen

Igandean herriko etxeetan zehar osatzen diren 3 kalejiretatik lehena ospatu zen, bestetako ekitaldi nagusia. Astelehenean Galaingo eguna, zikiro jatearekin. Asteartean, aldiz, babak txerri-buztana-rekin, ardi txuleta, tirri-tarra eta azalekoz osatutako ohizko gosari-bazkariarekin, eta asteazkenean herri kirola.



Latasako gazteak



Latasako paellaren prestaketan



Larraintzarko gaztetxoak



Larraintzarko gazteak (ez horren gazteak)



BERUETEKO OSTATUA

San Juan bautista kalea, 66
948 50 30 12

Betiko janaria, betiko eran egina
Eskaeren arabera bazkariak
eta askoz gehiago!

Sari ugari eskuratu du Ultzamaldeak Uharte-Arakilgo Artzai Egunean

Goldarazko Iosu Ollo Bildarratzek irabazi zuen ardi latxaren lehenengo saria, bai ardi helduen kategorian eta baita ardi gazteen kategorian ere. Bestalde, Egozkueko Marta Pérez Loperenak, gazta txapelketan bigarren saria eskuratu zuen.



Iosu Ollo Bildarratz, beste saritu askoren artean

Pasa den abuztuaren 26an ospatu zen Artzai Eguna, Uharte Arakilen, eta sari ugari etorri dira Ultzamaldera.

Iosu Ollo Bildarratzek, 350 ardi dituen Goldarazko semea, bi sari lortu zituen, esate baterako. Ardi latxaren esne ekoizpen txapelketan, alegia. Bertan, urtean errendimendu altuena lortu duena saritzen dute, eta Iosu Ollo izan da irabazlea, bai ardi helduen txapelketan, baita bi urte baino gazteagoen kategorian. Berarentzat oso egun garrantzitsua da: “Opari bat da artzaiontzat, egun zoragarria. Bertan ikusten da, biltzen den jende kopuruarengatik, zenbat eta zenbat baloratzen den gure lana. Nik poz handiz hartzen ditut lortutako sariak! Eta maila mantentzeko lanean jarraitu behar dut.”, nabarmentzen du Ollok.

Marta Pérez Loperenak, bestalde, Egozkueko alaba, Ardi Gaztako lehiaketan bigarren postua eskuratu zuen: “Oso pozik gaude, ez genuen espero, sorpresa handia izan da. Orain arte lortzen dugun saririk garrantzitsuena da, Nafarroako txapelketan bigarrena izatea oso garrantzitsua da”, aitortzen du. Loperenak 3 urte daramatza gazta egiten eta Uharte-Arakilen maiatzako gazta batekin irabazi zuen, eurek ekoiztutako esnearekin eginda eta gustu handikoa.



Marta Pérez Loperena, Nafarroako Parlamentuko lehendakariarekin

Ultzamaldeko pentsiodunek festa antolatu zuten

Sei urte daramatzate “sanferminak” antolatzen. Urtero egin ohi dute bazkari eder bat San Fermin aldera Ultzaman. Ultzamaldeko pentsiodunen elkarteak antolatzen du udako festa eder hau.



Carlos Etxenike eta Antonio Gorostieta



Ilarregiko Errotakoa, Edurne Beruetekoa eta Loli, Alkozkoa, beste batzuen artean.

Imotz-Atetz Gure sare elektrikoan hobekuntzak

Iberdrola, alderdi honetako sare elektrikoan, azken hobekuntza egiten ari da Imotz aldean. Atetz eta Imozko sareak lotzekotan da. Atezkoka Iriberrin bukatzen zen eta Imozkoka Muskitzen. Orain bi muturrak lotzen ari dira. Latasatik Muskitza bitartean matxuraren bat gertatuko balitz Atezkoka saretik izanen genuke argi-indarra. Eta alderantziz Atezek.

Ultzamako eta Basaburuko sareak lotu zituztela urte franko pasa da. Honekin ia gure alderdi guzira saretu dute. Soil-soilik Igoa eta Arrarats gelditzen dira aukera bakarrarekin, Eratsungotik dute argi-indarra eta Basaburuko gainerako sarearekin lotu gabe dago. Noizbait ezagutuko ote dugu?




Hemen Muskizko transformadore zahar batzuk. Azkenean, orain urte batzuk, bota zituzten. Zenbat horrelako ez da ikusten oraindik gure herrietan?



Ardiak lasai ederrean langileei kasurik egin gabe. Eta langileak postean gora lurrean ari balira bezala. Lehengo egun batean ikusi genituen Udabeko Martineko ondoan matxura bat konpontzen.

De Rerum Natura



Bero handiarekin eta giro ezin hobean ospatu zuten 2018ko Anueko eguna Egozkuen

Abuztuaren hasieran, Egozkuen ospatu zuten Anueko eguna bailarako bizilagunek. Bero handia eta giro bikaina izan zuten bi egunetan.



Abuztuaren 3an, ostirala, arratsaldean Anueko dantzariak aritu ziren eta emanaldi polit bat eskaini zuten hurbildutako jende guziari.

Ondoren sabela pixka bat betetzeko, merendu goxo bat izan zen: xingarra, txistorra, gazta...denen gus-turako.

Eta bukatzeko mus finalak jokatu ziren eta Etulain-go bikoteak irabazi zuen. Bigarrenak berriz, Etsaingo herriaren izenean aritutakoak suertatu ziren.

Abuztuaren 4an, larunbata, goizean bertako eta bertze herrietatik hurbildutako hainbat artisauek merkatu ttiki bat osatu zuten, hurbildutako guztieri beraien produktuak erosteko aukera emanaz.

Meza ondoren herriak prestatutako aperitiboa eskaini zen. Haurrak jostatzeko puzgarriak, "barredora" eta "salting" izan ziren. Arratsaldean berriz, kiliki txikiak herrian zehar ibili ziren bata eta bestea harrapatzen.

Eguerdiaren bestaren ikuskizun nagusia burutu zen.



Bi talderen arteko herri kirol lehiaketa. Aritzu eta Etsaingoak alde batetik eta Egozkueko "gazte" sorta bat beste aldetik. Nahiz eta lehia oso parekatua eta borrokatua izan, azkenean Aritzuko partaideek oso gogor aritu ondoren garaipena eraman zuten, ZORIONAK!!

Aipatzekoa, nola ez, Egozkueko partaideen lan bikaina eta zoriondu bi taldeen artean egindako joko garbia.

Herri kirola eta gero bazkari herrikoia txanda izan zen. 200 lagun pasa elkartzeko karparen barnean eguzkitik babesteko. Giro ezin hobean Zubillagako prestatutako platerekin gozatu zuen. Bazkal ostean Puro Relajo taldeak alaitu zuen arratsaldea. Hauen emanaldian ikusle batzuen "aktuzio berezi" batzuk ikusi ahal izan ziren.

Arratseko partean berriz, mus eta herri kiroletako sari banaketak izan ziren. Ondoren 120 lagun inguru elkartzeko berriz ere Zubillagaren eskutik. Afaldu eta gero DJ Futurarekin goizeko 6ak arte amaitu zen aurtengo Anueko Eguna





Etsaingo herri osoa elkarrekin

Herriko ia biztanle guztiak elkar-tu ziren aurrekoan Etsainen. Tere (etsaindarra) eta Johan (herberetarra) ezkondu zirenetik 50 urte betetzen ziren aurten, eta Johanen Uithizen herria ezagutzeko bideo proiektioa izan zuten Etsaingo Martinean. Herriak bikain erantzun zion deialdiari.



Menditarrak bigarren izan ziren herriz herrikoan

Ultzama aldeko herri kirol taldeak bigarren amaitu zuen aurtengo herriz herri txapelketa. Etxalarren, Burlatan eta Lakuntzan izan ziren txapelketak, eta Basaburuaren ondotik, bigarren izan ziren. Hirugarren Berriozarko taldea izan zen. Menditarrak taldean aritzen dira Olagueko Ruben Okariz eta Iñigo Otondo, Aritzuko Iñaki Mariñelarena, Iragiko Julen Lintzoain, Etsaingo Iñaki Iraitzotz, Iraizozko Barberena anaiak, Aroztegiko Xuban kañameres eta beuntzako Mikel Eugi..

Berriz ere ireki dira

Imozko Latasako gozotegia berriz ere martxan da. Txanik uztaila honen hasieran ireki zuen urte pare bat hertsia izan ondoren. Pizzak eta tartak saldu izan ditu eta hemendik aurrera ere langintza berean ariko da. Telefonoa 685.847.700

Igoako ostalua ere hilabete batzuk hertsirik egon ondoren ireki da uztaillaren 18an. Ostalari berria ekarri dute. Ongi etorri ostalari berriari eta ea luzerako den! Telefonoa: 656.387.181

Iritzia: "Torturatzaile baten aitortza"

Emakume bat eta gizon bat buruz buru. Kazetaria da aurrena, polizia bestea. Egoerak hartaratuta, torturaz ari dira. Tolesik gabe ageri da legearen zaindaria, ez da lotsarik haren hitzetan, ez da damu izpirik. «Emakumeak badaki zer den mina, badaki zer den hankagorri

bat izatea, haur bat. Gizonak, berriz, ez du inoiz halakorik izan. Emakumea gauza bada 70 zentimetroko ume bat zesarerik gabe munduratzeko, edozer jasan dezake, ze emakumeak ez du ematen, ez du deus ematen. Ez da hain ahula. Gogorragoa da».

Ahoan legarrik gabe mintzo da. Gizon zintzoa da: «Korrontea emateko titi-puntetan jartzen dira bi pintzatxoak, eta beste bi aluan. Makinatxoari eragin eta orduantxe egiten du zartadaxoa». Ezinago zintzoa: «Baina bortxatu, sexualki bortxatu, ez. Galdetu, galdetu lasai DINAtik igarotako edozein

emakumeri! Inor nik bortxatutakorik? Inor ez!».

Mercedes Soler kazetariaren aurrean bere bizitza eta lana xehatzen ari den Osvaldo Romo Menak hanka-joko bizkorrean atera behar izan zuen Txiletik Brasilerara. Harrapatu zutenean, sorterrira itzuli, epaitu eta kartzelan sartu zuten. Urde zantarra da Romo Tripaundi komandante ohia, piztia okaztagarri bat. Sistemak berak bota du satsetara, izan ere, nork nahi du halako sadiko bat lagun.

Emakume bat eta gizon bat buruz buru, Txiletik urrun,

handik ia mende laurdenera. Torturaz ari da Manuel Pastrana guardia zibil jubilatua ere, Laura Rosel kazetariarekin. Romo bezala, gerora hilduratuko zituenen artean ibili zen infiltratua gizona; eta Romo bezala, ohar enpirikoak egiteko gai da orain irribarretxoa loratzen zaion artean: «Oro har, euskal herritarrak makalak dira, ikutu orduko kantatzen dute».

Baina Romok ez bezala, Pastranak ez du ihes egin beharrik izan. Sistemari ez zaio asaldagarri elkarrizketan dioena, ez da piztia bat, egin duen lanagatik esker ona zor zaion gizon zintzoa baino.



Iñigo Aranbarri
BERRIA egunkarian

Paisaia eta lasaitasunaren bila datoz Izarpeko turista anitzak

Gehienak Hego Euskal Herriko etorri dira, nafartarrez gain, gipuzkoarrek osatzen dute gehiengo hori. Baina Madril, Alicante, Asturias eta Zaragozatik ere etorri zaizkigu. Kanpotarren artean, Ingelesak daude zerrendaren buruan, harritzekoa bada ere, frantsesen aurretik. Gainera, Herbeeretatik eta baita Poloniatik ere iritsi dira. Kanpinen arduradunak pozik daude nahiz eta eguraldia erokeria izaten ari den. Hain zuzen ere, uztaillaren bukaeran gerturatu gara, ostirala, eta iritsi bezain pronto hasi da txirimiria, aste beroa eta eguzkitsua izan eta gero.



KAROL, NAHIA, MADDI ETA AITANA - ORERETA

Carol Erreterian bizi da senarra eta bi alabekin, eta asteburuetarako etxetik gertu dagoen leku lasai baten bila zeuden. Martxoatik, Izarpe ireki zutenetik daukate partzela alkitatuta. "Gehienez ordubetera zegoen leku bat nahi genuen, gure lanarengatik. Kanpin berria, lekua oso polita, giroa ere bai, ausartzea erabaki genuen azkenean". Ontzgingintza enpresa bat daukate, itsasontziak konpontzen dituzte, eta orduan

udan bereziki lan asko daukate. "Senarrak normalean astebururo lan egiten du, behintzat udaran, eta horrela badaukat aukera alabekin nonbaitera joateko, etxetik ateratzea pixka bat". Kanpin ezberdinak egon ziren begiratzen, eta ezin aukeratu zenbilen, neguan Izarpe bisitatu, arduradunekin hitz egin zuten, eta planteamenduak konbentzitu zituen: "jendearekin egon ginen hitz egiten, euren planteamendua gusztatzen zaigu eta azkenean esan genuen, ausartuko gara eta karabana hona ekarriko dugu".

Oso pozik daudela aitortzen dute, zonaldea ez zuten ezagutzen eta izugarri atsegin dute. "Giroa oso polita, oso lasaia, gu bizi garen tokian nahiko zarata dago, eta gure bizitzako erritmoa nahiko zera da... eta honera etortzen garenean kriston lasaitasuna aurkitzen dugu". Karol mendi talde batean sartu da, nordic walking edo martxa nordiko deituriko modalitatekoa, eta horri esker ezagutzen ari da Atetz eta ingurua. "Bai, hasi gara dagoeneko mugitzen eta oso polita da, inguruko herriak ezagutu ditugu, Lizaso eta Ziganda, esate baterako. Baita bailaratik kanpo daudenak, Egillor, adibidez".

PEDRO - IRUÑEA

Oraindik gertuagotik dator Pedro, Iruñeatik. Duela urte batzuk kanpinera zaletu ziren bera eta familia: "betidanik izan ditugu gogoak horrelakoak egiteko, baina orain arte, alabak txikiak izanda ezin genuen. Duela 4 urte hasi ginen kanpinetara joaten, orain arte bungalowetan edo kanpinetako zurezko etxeko horietan egon gara. Katalunia inguruan eta Balentzian ibili ginen aurreko urtean, esate baterako. Aurten gogoak genituen hurrengo pausu bat emateko, dendak erosi eta honera etorri gara".

Emaztea eta koñatarekin etorri da Pedro. Iritsi berriak, dendak eta partzela antolatzen dabilta, eta hemen izango dira uda osoa. "Emaztea eta koñatarekin etorri naiz, koñata laguntzera etorri zaigu, alabak Iruñean utzi ditugu. 15 eta 16 urte dituzte eta...txikia ia ia konbentzitu dugu, baina azkenean zinemara joatea erabaki dute! Beste egunen batean etorriko dira, dena prest dagoenean (barrezka)".

Pedro Aroztegi herriarekin harremana dauka, bertako organojolea izan baitzen duela urte batzuk. "Esan zutenean kanpina eraikiko zutela, esan genion gure buruari, goazen ikustera. Orduan inauguraziora etorri ginen. Eta pena mezezi du etortzeak, tokia izugarria da. Inguruan zehar ibilt-

zera joatea eta ordubeten inor ez ikusteko aukera izatea, munduko gauzarik hoberena da". Planen artean paseatzea da nagusia, "inguruko ermitak ikusteko ibilbideak egingo ditugu, gero inguruko herriak ere bai: Eguaras, esate baterako. Organojolea nintzen garaietatik ea zenbat aldatu diren, ea ezagunen bat ikusten dudana". Baina atsedean hartzera bakarrik ez, ongi pasatzera datozela dio, kanpinetan lagunak errez egiten baitira.



ANNE, FABRICE, MARION, TIBUAN ETA AGUSTIN - FRANTZIA

Frantses familia hau txiripaz iritsi dela esan dezakegu. Frantziatik, Orleansetik hain zuzen ere, atera eta Donostian egun bat pasa eta gero, Iruñeako bidea



hartzea erabaki zuten. Bidean lo egiteko kanpin baten bila, Atetzen bukatu dute. "Gaur iritsi gara, Donostiatik. Bihar Iruñeara goaz eta horregatik bertatik gertu egin nahi genuen lo. Gero Zaragozara joango gara".

Planik gabe datoz eta ez dakite zonaldea ikusteko asti handirik izango duten, baina ikusi dutena gustokoa izan dute, "lekua, mendiak eta landa eremua oso polita da. Ez dugu asko ikusi baina ikusi duguna oso polita da. Gainera, kanpina oso ongi antolatuta dago, partzelak, bungalowak, oso ongi pentsatuta dago, oso eroso da. Atzo ez genekien Iruñeara joango ginenik, agian gero zonaldea ikusiko dugu, bai".

Erabakitzen duten bitartean eguraldiari aurpegi ona jartzen diote, euria hasi baita eta zeruari begiratzen diote, "egia esanda eguzkiaren bila goaz...hala ere hobetzen doa, atzo kriston ekaitza bota zuen, gaur baino okerrago zegoen kar kar kar!"

BEATRIZ ETA AITOR - ANTSOAIN

Aitor eta Beatriz ere fijoak dira, Ansoainetik iritsita, hasieratik ere daukate alkilatua partzela. "Marxoa alkilatatu genuen partzela, baina orain arte ez gara gehiegi etorri. Fernando (arduradunetako bat) nirekin lan egin zuen eta ideia kontatu zidan. Planoak erakutsi zizkidan, eta oso gustokoak izan nituen, baita proiektua ere. Hasi zutenean deitu zidan eta orduz geroztik".

Nahiz eta oporretan ez egon, egunak ematen dituzte Izarpen, "lanetik gertu gaude eta agian bost egun ematen ditugu hemen eta gero hiru Ansoainera, seme-alabak baititugu eta beraiek han egoitea nahiago dute. Hiritik atera nahi genuen baina aldi berean gertu gaude, orduan aukera ematen dizu lanera joatera hemendik".

Ez zuten Atetz ezagutzen eta oso pozik daude erabakiarekin, "Ultzama bai ezagutzen genuen baina bailara hau, Atetz, ez. Bilatzen genuena da,



mendia, ibiltzera eta paseatzera joatea, lasaitasuna. Gehien bat txakurra hartu eta ibiltzera goaz, bera nekatzeko helburuarekin, eta baita perretxikoak hartzeko (barrezka)!".

SELVA - LA HORMIGA MAIA

Selva 'La Hormiga Maia' arropa marka jarri zuen martxan duela 3 urte Lumbierren. Bertan bizi da nahiz eta Iruñeakoa izan. Uda honetan zehar Izarpen lo egiten du eta bertan jartzen du bere denda, inguruko bezero asko ditu eta horrela gertuago dago. Gerturatzeko aukerarik ez duenarentzat, lahormigamaia.es webgunean erosten ahal du bere arropa.

**ARGAZKI OINAK:**

1. Carol bere alabekin, Nahia eta Maddi, 4 eta 7 urtekoak; eta ilobak, Aitana, 13 urte ditu.
2. Pedro 'kanpamendua' prestatzen, emazte eta koñata lotsatiek ez dute argazkian atera nahi eta Ainhoa, Izarpeko arduradunetarikoa bat, jarri da berarekin.
3. Anne eta Fabrice bere hiru seme-alabekin, euria datorren arren, poz-ozik daude.
4. Beatriz eta Aitorren txakurrak bere lekua aldarrikatzen du argazkian.





Ultzamako mendi triatloia, kirolaz gozatzeko urteroko zita

Abuztuaren 15ean, amabirjinaren egunarekin kointzidituz ospatu zen Ultzamako mendi triatloiaren 21. ekitaldia. Partehartzea nabarmen handiagoa izan zen distantzia luzean laburrean baino, gehienak federatuak. Ultzamar gutxi aritu ziren. Idoia Eraso eta Alejandro Pareja izan ziren irabazleak lasterketa luzean, eta Marina Tiscar eta Mikel Iribarren distantzia laburrean.



Berasain anaiak

Goizeko 11etan hasi ziren lasterketa luzeko kirolariak Leurtzako urtegiatan 500 metro igeri eginez. Uretatik atera eta bizikleta hartu zuten Larraintzarrerako bidean, hasierako malda gogorak aurretik zituztela. Jeitsiera tekniko eta azkar baten ondotik Larraintzarra iritsi eta 2,5 kilometro egin behar zuten korrika, Larraintzarko herrira igoz.

Alejandro Pareja izan zen lehenengoa Larraintzarko frontoiko helmugara iristen, eta bere atzetik iritsi zen Martin Iraizoz. Ohikoa den beste kirolari bat, David Latasa izan zen hirugarrena helmugan. Mikel Berasain auzarra 17. izan zen Emakumeetan Idoia Eraso izan zen azkarrena, baina gertu izan zuen Maria Gomez. Hirugarren Elisa Ester izan zen. Bere ondotik iritsi zen Lucia Osoz arraiztarra.

Lasterketa laburrean, igeriketan 200 metro baino ez zituena, 15 kirolari aritu ziren, beste urteetan baino gutxiago. Dena den, giroa ederra zen, eta lasterkarien arteko harreman sana nagusitu zen. 3 emakume aritu ziren, eta Marina Tiscar izan zen azkarrena. Silvia Roncal izan zen bigarren eta Teresa Pascual hirugarren. Mutiletan Mikel Iribarren izan zen aurrena, bigarren urtez jarraian. Bigarren Auzako Joseba Berasain izan zen, eta Haritz Beloki hirugarren. amezti.eus webgunean dituzue sailkapen guztiak.

Lasterketa amaituta ohiko luntxa izan zuten Larraintzarko igerilekuan, eta sari banaketa egin zuten.

Antolatzaileek babesle eta laguntzaileen garrantzia nabarmendu digute, eta batez ere Fran Tufferreta, Zerbitzu sozialetako langileak, Behikoa harategia, Apeztegi berriko denda eta gaitzako boluntarioen lana eskertu nahi dute.



Lucia Oskoz eta bere familia

Cederna Garalurrek ematen duen arretaren erdia Basaburua eta Ultzaman izaten da

Auto-enplegurako informazio laguntza da Cederna Garalurrek ematen duena, Nafarroako Iparraldean. Eta Garapen agentziak aurten jaso dituen kontsulten %40 Basaburuan eta Ultzaman izan dira. 2017ko martxoa eta Abendua bitarte 27 hitzordu izan zituen guztira, horietatik 7 Basaburuan izan ziren, 3 Ultzaman, 2 Imotzen eta bakarra Anuen. Aurten, ekainera arte 25 daramatzate guztira, horietatik 6 Ultzaman eta 5 Basaburuan. Elena Irigoien Arbizu da gure zonaldea eramaten duen arduraduna, Leitza, Goizueta eta Lekunberrirekin batera, eta onartzen du gurea, eskualde mugitua dela.

Gero zenbatek egiten dute aurrera?

Aurreko urtean 4-5 pertsona jarri ziren autonomoetan. Baina hori ez da beti esanguratsua, prozesu bakoitzak luze-ara bat duelako. Agian aurreko urtean ez dute autonomoetan alta ematen, oraindik ez daudelako fase horretan, baina martxan daude dagoeneko.

Denda bat, landetxe bat...horrelako ideia batekin datozenean, esate baterako, zer motatako laguntza ematen diozue?

Hasteko, erosketa egin baino lehen etxea nola dagoen begiratzeko esaten diet, zaharberitzeke zer motatako diru-laguntzak dauden... Gero, etxeari ura sartzeko daukan arriskua hartu behar da kontuan, ibaia gertu izatekotan, konfederazioaren baimena izan behar duelako, eta udalen baimenak, turismokoak...

Baina orain, gainera, negozio eredia asko lantzen dugu promotoreekin, nolakoa izan behar duen zehazten laguntzen dugu: zein den zure produktu edo zerbitzua, zein den zure balorea, zer eskaintzen duzun kompetentziak eskaintzen ez duena, zer zerbitzu mota eskaini behar duzun, eta hori guzti hori oso lotuta zerbitzu motari. Jendeak esaten dit, "nik denentzako nahi dut", eta noski, ez diozu inori atea itxiko, baina izan behar duzu buruan oso garbi zein den zure bezero objektiboa. Eskainiko duzun landetxea bereziki familiendako, edo bikoteendako edo lagun taldeendako, gazteendako, izango den argi izatea. Horren arabera zerbitzu batzuk edo beste batzuk eskainiko dituzulako. Eta kasu honetan landetxean berritze lanak egin baino lehen pentsatu beharreko gauza bat da. Familia baldin bada, umeekin jolasteko tokiren bat beharko du, edo, bikoteak baldin badira, gelatxoan bainera handi bat izatea, kapritxoazko zerbait lasai egoteko...

Krisiaren ondorioz proiektu geroz eta berritzaileak agertu dira?



Ematen ez duen arren hemen denda bat jartzea oso berritzailea da. Hau (Apeztegi berri) bai izan zen berritzailea, urte asko egon baitzen eztabaidan beharrezkoa zen edo ez zen. Berritzailearena.. agian toki batean berritzailea ez den zerbait beste batean oso berritzailea da.

Gero, ekintzaileen profila oso ezberdina da. Badaude jaiotzetik horrelakoak direnak, gauzak egiteko grina hori dutenak, baina horiek gutxienekoak dira. Gehienak "behartuta" bihurtu dira ekintzaile, ez dute lana aurkitzen, ez dute besteen kontura lana lortzen, eta orduan bere kontura saiatsen dira. Beste batzuek urte asko eman dituzte besteen kontura lan egiten, esperientzia handia daukate, eta orduan gauza bera egitea erabakitzen dute baina euren kontura. Perfil ezberdinen arabera ematen den aholkularitza ezberdina da. Azken hauei argi uzten diet, ez dela bakarrik lana egitea, lana kontrolatzea, kudeaketa ere badela. Tramitazio dezente dago, adibidez. Nafarroako enplegu zerbitzuarekin daukagun hitzarmenaren bitartez formakuntza antolatzen dugu. Gehien bat tramitazioari buruzko formakuntza.

Oztopo handiak al daude proiektu bat aurrera eramateko?

Segun eta zer. Izarpe kanpinekoak, adibidez bi edo hiru urte egon ziren tramititzen. Hori proiektu potoloa izan da, denbora dezente egon gara beraiekin. Ideia zehazten, diru-laguntza ezberdinak begiratzeko, formatua... (adibidez, beraiek kooperatiba eredia ari ziren begiratzeko eta ANELengana bideratu genituen)

Arazoa izaten da herri gunean baldin bada, segun eta zer ekintzak diren, oztopoak dituztela. "Lurzoru eraikigarri" horretan segun eta zer egin nahi duzun arazoak izan ditzakezu.

Asko aldatu da zonaldea?

Azkeneko bi-hiru urte hauetan lehen dabilen sektorean ikuspuntua asko aldatu dela ikusi dut. Hasieran ez genuen hainbeste beraiekin lan egiten, PAC-ekoak zeuden eta diru-laguntzak haiek antolatzen dituzte. Baina aurreko urtean 4 promotore etorri zitzaizkidan, eta hori asko da, nekazaritza lan egin nahi zuten gehien bat, baina baserri eredia mantenduz: dibertsifikatua, salmenta zuzenarekin. Baina eredu horiek ez dira batere errazak, joera izan baita azken 20, 30 eta 40 urteetan eredu intentsiboa bultzatu eta salmenta ez zuzeneko. Diru laguntza guztiak horretara bideratuta daude. Oztopoak daude toki guztietatik eredu hori aldatzeko. Baina gauza horiek aldatzen ari dira. Alde batetik bezeroa askoz kontzienteagoa da, erosteko beste eredu bat nahi duela, beste kontsumo eredu bat. Baina errentagarria izatea ez da erraza, poliki-poliki doaz, oztopo asko daude: UTA (Unidad de Trabajo Agrícola) lortzeko zaila da, badituzte batzuk saskien bitartez salmenta zuzena egiten ari direnak. Bestalde, landa turismoa izan da izarra eta oraindik badaude batzuk baina gutxiago, diru-laguntza askorik ez dute gainera. Boladak izaten dira.



ARDO FREXKOTIK

Dakizuna atzendu, eta berririk ikasi ez?

Gure aurrekoengandik ikasi duguna estimatu behar da. Eta etxekoa eta herrikoa maitatu behar da. Baina askotan ez dugu hori egiten. Etxekoa utzi, kanpokoa hartu. Herrikoaren ordezkari hirikoa har. Gurea baino lehen, besteena nahiago.



Hona hemen gure boskotea. Egur pilaren gainean erdi lotan. Hala ere kapitaina erne, ongi iratzarrik, denak abisatu, eta lasterka abiatzeko prest!

Esaten den bezala, askotan izaten gara kanpoeder. Gehiegitan esanen nuke nik.

Gure hizkerarekin ere hori zaigu gertatzen. Etxekoa utzi, kanpokoa hartu. Eta hori etxekoa ikasi dugunean, gehiegitan ez baitiegu gure zaharrei ez aditu eta ez entzun ere egiten. Ikasteko metodo okerra!

Oraingo gazteek noiz erabiltzen dute **iratzarri** (iatzarri) hitza? Gipuzkoatik sartu zaigu **esnatu** hitz zalantzagarri hori. Gure hizkeran beste esanahi bat luke hitz horrek, esnea emateko prest dagoen landareaz edo animaliaz esanen genuke.

Bi gai, bi hitz: bat da **zura** eta bestea da **egurra**. Orain dena da egurra. Eta jakina, hemengo euskaldun bati esaiozu egurrezko etxe bat egin duzula!

-Gizon hau txoratu egin al da? Nola egin liteke egurrezko etxe bat? Sua emateko ez zuen egiten ba!

Buruko **ileari kalparra** esaten diogu eta orain ilea mozttera noa esanen dizu nornahik. Jaun-Andrea, ilea, ilea, ardiarena!

Sarri artio, gero artio. Diferentzia ederra bien esanahian. Orain denok "gero artio" darabilgu. Bi esanahi eta hitz bat. Ederra hizkuntza aberasteko.

Orain, laster, **lasterka**, lasterketa...utzi eta **korrika** ... hartu dugu. Mandoa saldu astoa erosteko, ederra bi daia!

Eta zer esan, **gaztanbera** gurea **mamia** hitzarekin ezabatu dugunean? Ba kontu zahar batekin natorkizue:

Tolosako ferian han ari omen ziren saltzaileak, denak beren gauzak saltzen, eta emakume bat han, ekarritako gaztanbera saldu nahian, oihuka: "mamiee! mamieeee! mamieeee!"

Ta ondotik soldadu nafar bat pasatu eta esan omen zion,
-No hezurra!!!

Eta hezur bat sartu omen zion "mamian", hau da, hezur eta mami behar moduan jarri zion, bat gabe beste ezin baita.

Kontu honek badu bada urte pila, orain ehun urte jasoa da-eta. Jakin ezazu zenbat urte izan litzakeen!

Ez dezagun apaletsi gurea eta kanpokoa ederretsi. Okerreko biderik ez egin. Eta alper bidaiarik gutxiago. Eutsi gureari eta behar denean hartu kanpokoa. Behar dugunean soilik!!!

HITZAK

Kanpoeder: kanpokoekin ongi konpondu. Kanpokoekin kontuak. Eta etxekoekin?

Kalparra: gizakien buruko ilea.

Sarri artio: Sarri, gaur eta berandu baino lehen gainera, hemendik ordu batera, bi ordutara edo.

No! To! Tori! : Aurreneko biak hiketan, lehena emakumezkoiei eta bigarrena gizonezkoiei. Hirugarrena, berriz, zuketan.

Apaletsi: rebajar, despreciar.

Ederretsi: ensalzar.



Ziaurrizko Maite Larretxea Zilbeti protagonista Santurben

Hileko lehenengo igandean, Abuztuaren 5ean, akordeoi kontzertu bat egon zen Ziaurrizko Maite Larretxea Zilbetiren eskutik Odieta Santurbeko basilizan.

Odieta Udalak eskaini zion kontzertua egiteko aukera:

“Lehendabiziko momentutik baietz esan nien. Aukera ona iruditu zitzaidan akordeoiaren beste ikuspuntu bat jendeurrean erakusteko gaur egun, jendeak, akordeoia euskal folkloreakin erlazionatzen baitu: erromeriek eta besta giroekin hain zuzen ere.”

Bertan estilo ezberdinetako piezak entzuteko aukera izan zuen jendeak: J. S. Bach, Albinoni eta A. Vivaldiren obra klasikoak, A. Piazzollaren tangoak, “The sound of silence” kanta famatua, musette frantsesa etab... Bestalde, kontzertuan gonbidatu berezi bat izan genuen: Ziaurrizko Eduardo Valpuesta tenorearena. Biak batera, F. Schubert-en “Ave Maria” eta “el Roncalés” jo zituzten (azken honi “el Odieta” deitu zioten letra

aldatu eta Odieta bailarari erreferentzia egin baitzioten).

“Jendeak ezagun eta gustuko izan zezakeen erreperitorio bat bilatu nuen. Ondotik, gogor eta ilusioz ekin nion lanari kontzertua ahalik eta hoberen atera zedin”. Prestakuntza horretarako sartutako orduak eta esfortzua bere fruitua izan zuten.”

Kontzertua oso ongi atera zen. Jendeak txundituta eta gelditu gabe txalo egiten zuen batez ere, J. S. Bach-en “Tocatta eta Fuga Re m-en”, A. Vivaldiren “Verano” eta Eduardo abestutako obrek.

“Eskerrak eman nahi genizkioke gu ikustera etorritako guztiei, basiliza bete baitzen. Jendeak emandako babes horrek eszenatokian lasaitasuna, indarra eta jotzen jarraitzeko gogoak transmititzen zizkiguten haiek gu bezala disfrutatu eta ongi pasa zezaten kontzertuan.”



Irurtzungo lagunekin batera, Imozko xendak eta botxa jokoak ezagutzeko aukera aurtengo xenden egunean

Imozko xendak elkartzen dituzten paraje eta inguruak ezagutzeko eguna izaten da xenden eguna. Aurtengoan, gainera, Irurtzungo Iratxo elkartearekin batera antolatu zuten, eta Eraso eta Irurtzun ibiliz elkartzeaz gain, Iratxo elkartearen ohiko praktika bihurtu den botxa jokoak ezagutzeko aukera izan zuten bertaratutakoek, imoztarrek prestatutako botxatoki batean.



Goizeko 7etan hasi zen mugimendua Erason. Ordurako prest ziren herriko bizilagunak txaleko horiak soinean zituztela jasoko zuten jende guztiarendako aparkalekuak seinalatzen.


Izan ere, lehenbiziko mendi martxa 7:30ean hasi zen, luzeena, Irurtzunera iristen zena, baina hiru izan ziren ibilbideak, zailtasunean ezberdinak. basaburua, Larraun zein Irurtzundik etorri zen jendea.

Mendizaleak ibilian ari zirela, artisauak iritsi ziren Erasoko pilotalekura, 10 inguru. Txirulak, zapatak, arropa, zurezko irudiak, pateak, gaztak, kaikuak... jendeak produktu horietaz guztietaz gozatzeko aukera izan zuen.

Eta ederki gozatu zuten Txoko-txiki zaharberrian. Pintxo-potearen tenorean lepo bete zen txokoa, itzal bila eta edari bila, gero Alfredo muskiztarrak labean egindako pintxoak pasatzen laguntzeko, ttikienak puzgarrietan dibertitzen ziren bitartean.

Eta eguerdia pasata botxa txapelketa izan zuten. 8 bikote, horietako bakarra emakumez osatua, nahiz eta emakumeen presentzia aldarrikatzen saiatu ziren herri-tarrak. Eta txapeldunak Irurtzungoak. Goldarazko jate-txean bazkari bat izan zen haientzat saria. Imoztarrek egindako botxategi hori Latasako pilotaleku estalian dago orain, urte osoan jokoaz gozatu dezaten.

Oro har, giro bikaina eta eguraldia lagun, beroegia agian, baina jendea gerturatu zedin balio izan zuena. Dena bildu eta aste baten buruan hasi ziren Erasoko pestak, deskantsatzeko denborarik izan gabe!



“Ni, nire kontu jarri nuken. Leitzan ikasitakoak balio izan zidaken”

Suarbeko *Erlatoki* deitu bordan bizi da eta bertan hazi du familia. Andrea, Mari Jose Pikabea, Gerendiaingo *Etxeberriko* alaba. Bi seme hazi dituzte, Xabier eta Gorka. Bere lan bizitzaz galdetzera joan gatzaizkio, bai baitakigu, beti hemen, Ultzaman, ibilitakoa dela.



Jesus Mari, bere etxe ondoan.

Non jaio hintzen, Jesus Mari?

Hortxe, hor ageri den borda horretan, *Polloneko* borda edo *Altunan* borda esaten dioten horretan.

Eta ikasketak?

Lehenik Ilarregiko eskolan, eta laster, Larraintzarko eskola berriak egin eta, egunero autobusez Larraintzarra. Gero Seminarioan urte bat. Gustatzen ez eta Leitzarra; han profesional ikasketak egin nitian.

Hire lanbideez zerbait jakin nahian etorri gaituk. Lanean non ari izan haiz?

Lanean? Toki franko ibili izan diat, motel. Lehenbiziko Leitzako paper fabrika. Gero soldadu eta, berriz ere, Leitzako fabrikara. Papera krisian sartu eta langile aunitz kanpora joan behar, ni horietako bat. Dena dela, bi urte edo bi urte eta erdi egin nitian bertan, soldadu joan aitzinetik eta ondotik.

Eta krisia Leitzako fabrika, baina garai haietan bahuana lana.

Bai, bai, eta etxetik hurbilago gai-

nera. Orduan Iraizotzen, Danonek jendea behar zuela eta hemen sartu nuken.

Izugarri ongi, lan polita eta eroso bizi ginuken. Baina hemen ere, Danonekoek, Espainia guzian moldaketak egin behar zituztela eta, fabrika batzuk hertsu behar zituztela bertzeekin segitzeko... eta, bertze batzuen artean, Ultzamako fabrika hertsu ziaten. Nik hemeretzi urte egin nitian bertan.

Latza izan huen fabrikaren hertsitzea. Ultzama eta inguruetakoa jendea lanik gabe. Hala ere zenbaitzuk lana topatu ziaten berehala.

Bai, latza gure eskualderako. Gero, bakoitza ahal zuen bezala moldatu huen.

Ni, nire kontu jarri nuken. Leitzan ikasitakoak balio izan zidaken. Iturgintzan hasi eta honetan ari izandu nuken zortzi urtez. Azkenik, zenbait arazoengatik, lan hori ere utzi beharra izan nian.

Eta nora jo huen?

Berriz ere Ultzaman bertan opatu nian lana. *Cauchos* fabrika, makina guziak montatu nitian, eta gero bertan segitzeko eta segitzeko, eta hala bertako mantenimendua egiten gelditu nuken. Baina laster hertsu huen eta berriz ere lanik gabe eta...

Lan berri batera.

Bai, Joxe Saralegik, Goxuako nagusiak deitu zidaken eta Goxuan sartu nuken. Fabrika honetan ere mantenimendu lanak egiten ditiat joan den hamalau urte honetan, baina denbora laburrerako, laster jubilatze kotan negok eta.

Hona, labur-labur, Jesus Mariren lan-bizitza. Batean ez bada bertzean, ez da lanerako aitzakiaz egoten den horietakoa.

Zenbait gauza tinteroan utzi ditugu eta, berriz ere, bisitan etorriko natzaiola agindu diot. *Polloneko* bordalde guzia gainera toki zoragarrian dago; aitzaki bat gehiago adiskide zaharrak bisitatzeko.

“Escape natura”, gure kultura eta inguruak ezagutzeko jolasa asmatu du Ernaizu kooperatibak

Orokietako ostatuan Basaburuko lehen “scape room” jokoak jarri zuen martxan Ernaizu kooperatibak. Oraingoan, “scape” jokoak berrasmatu egin dute, eta gela batean egin beharrean, kalean, naturan egitea erabaki dute.



Badira hilabete batzuk Amalurraren erronka jokoarekin hasi zirela, Basaburuan zehar asmakizunez asmakizun joan beharreko jokoak, naturan.

Oraingoan, joko hori haurrendako bide-ratzeko hautua egin dute, eta Orokietan, ordubete inguruan pistak aurkituz jokoaren amaierara iritsiko dira parte hartzaileak. “Basajeinuen mezua” du izena. Joko dibertigarria da, gure mitologiaren eta kulturaz bustia, haurren dibertimendu eta ikasketarako aproposa.

Izan ere, euskal mitologia da bi jokoaren ardatza: basajeinuak, Mari, sorginak, lamiak...

“Scape room”-a sortu zutenetik bisitari ugari hartu ditu jokoak asteburuetan, eskualdekoak zein urrutiagokoak: Iruñerria, Herrialde Katalanak, Gaztela... eta joko berri hauek harrera berdintsua izan dute.

Mariona Cap del Bosc Etxegia kataluniarra da, gainera, jokoaren protagonista “Scape room”-ean bere etxetik ateratzeko datza zailtasuna, eta “Amalurraren erronkan”, Amalurraren ordezkariak sekretua aurkitzea, Marionaren arbasoa

den Graxiana ordezkariak horretako kide baitzen.

Honela, euskal mitologiaren sakonduz eta Basaburuko txokoak ezagutzeko, jokoaren korapiloak askatzen joan irira partaideak.



Gartzarongo esku-pilota txapelketan emakumezkoak ari dira lehenengo aldiz

Uztailaren 22an hasi zen eta azarora arte luzatuko da 34. edizio hau. Aurten lehenengo aldiz lehiatuko dute neskek, baina Gartzarongoa ez da salbuespena, geroz eta ugariagoak dira emakumezkoen master cup-ak eta aurtengo San Ferminetako txapelketan ere nesken modalitatea antolatu zuten, Labriten. Bertan aritu zen 25 urteko eta Latasako Eskolako alaba, Andrea Aldaregia Etxeberria. Berarekin eta Gartzaronen lehiatuko den 15 urteko Leire Garai Galtzarain gasteiztarrarekin hitz egin dugu. Emakumezko esku-pilotan ematen ari diren aurrerapausoak nabarmentzen dute biek.

ANDREA ALDAREGIA ETXEBERRIA


“Oso hunkigarria izan zen. Nire partida bukatu nuenean neskatila batek eskumuturrekoa eskatu zidan, eskumuturrekoa!”

Ez zuen irabazi baina frontoia gainezka ikusteak asko hunkitu zuen, eta hori bakarrik merezi izan zuela antzeman daiteke bere harridura keinuetan. 8 urterekin hasi zen esku-pilotan, baina 14 bete zituenean utzi behar izan zuen, neska nahikoa ez zegoelako lehian jarraitzeko. Duela 3 urte kantxara itzuli zen eta Oberenenan dago orain. Irabazitakoaren artean, Nafarroako Jokua, 14 urterekin; San Fermin Txikitoko lehiaketa eta Riojako Txapelketa, 2016an. Pilota lanarekin uztartzen du, noski, eta lan txanda aldakorrek ez diote tarte handirik uzten entrenatzeko. Hala ere, gauzak aldatzen ari direla dio. 100 emakume biltzen dira master cup-etan eta frontoiak betetzen hasi dira, gainera.

LEIRE GARAI GAINZARAIN

“Gutxinaka aurrera goaz, bi urte hauetan 13 urtetan ikusi ez dudana ikusten ari naiz, eta horrela jarraitzea espero dut”

Nebak ere Gartzarongo txapelketan parte hartu zuen duela urte batzuk, eta orain, emakumezkoak lehenengo aldiz jokatu dutela, bera arituko da. Hain zuzen ere, anaiaren eraginaz hasi zen pilotan, 6 urte besterik ez zituela. Ez da gurera datorren lehenengo aldia, ordea, dagoeneko Latasako Txapelketa irabazi baitu. Andrea bezala, aldaketa garrantzitsuak nabaritzen ditu, izan ere, 10 urte gazteagoa, bilakaera guztiz ezberdina lortu du. Mistoarekin jokatzen du 9 urte zituenetik, mutilek beti egin duten bezala, eta naturaltasun osoz ikusten du. Irabazi duen azken txapelketa, Arabako 4 t'erdia izan da, eta Emakume Master Cup txapelketan finalerdira heldu zen Élite mailan binakako txapelketan, eta 4 t'erdian.



“Oso hunkigarria izan zen. Nire partida bukatu nuenean neskatila batek eskumuturrekoa eskatu zidan, eskumuturrekoa!”



Zer moduz ikusi zenuen zure burua San Ferminetako txapelketan?

Laugarren postua lortu nuen, baina Labritera iristeagatik oso pozik nago. Buruz ongi nengoen, baina gero gauzak ez ziren ongi atera. Aurrelaria naiz ni, atzean jokatzeari ez dut gustuko, baina nire bikotekidea ere aurrelaria da, eta atzean jokatzeari tokatu zitzaidan.

San Ferminetako emakumezkoen txapelketaren aurkezpenean ikusi zintugun, zer suposatzen du horrelako txapelketa batek emakumezkoen lehia ere izatea?

Buff! Ikaragarria da, ikaragarria benetan. Inoiz ez nuen sinistuko horrelako txapelketa batean jokatuko genuenik, Labriten, jendez gainezka. Oso garrantzitsua da horrelako txapelketetan nesken arteko lehia ere antolatzea. Gainera, jende pila joan zen gu ikustera, bai emakumeak, bai gizonak, bai umeak! 100 bat pertsona espero genituen, gure lagun eta familia tartean, eta bat-batean frontoia ia beteta ikusteak izugarria izan zen. Instituzioetatik ere, adibidez, Uxue Barkos, Nafarroako presidentea etorri zen. Kantxara atera nintzenean eta horrenbesteko jendea ikusi nuenean oso urduri jarri nintzen. Baina aldi berean oso hunkigarria izan zen. Nire partidua bukatu nuenean neskatila batek eskumuturrekoa eskatu zidan, eskumuturrekoa! Nahi zukeen guztia emango niokeen! Mutiko batek argazkia ere eskatu zidan. Ezin nuen sinetsi.

Horrelakoetan konturatuko zinen benetako eredia bihurtzen ahal zarela, ezta?

Bai, jendeak ikusi du guk ere jokoa ematen dugula, guk ere jokatzeko dugula eta nabaritzen da gogoak daudela emakumeak esku-pilotan jokatzeko ikusteko.

Nola hasi zinen zu?

Bada, 7 edo 8 urte nituela hasi nintzen, Irurtzunen. Amaia Jaka laguna bertan hasi zen garai hartan, eta berarekin apuntatu nintzen. Orduan mutilen kontra jokatzeko genuen. Baina 14 urte betetzerakoan utzi behar izan genuen, gorputza aldatzen hasi zitzagun, eta jada ezin genuen mutilekin lehiatu. Gero, duela 3 bat urte, Amaia Jaka lagun hau Iruñean hasi zen berriz bospasei neskekin, eta ni ere beraiekin aritzea eskaini zidan. Horrela itzuli nintzen berriz esku-pilotara. Denborarekin talde hau desegin behar izan dugu, bakoitzaren lanarekin uztartzea zaila suertatu zaigulako, eta orain Oberenaren nago jokatzeko. Bitartean, esku-pilotan ez ezik, frontonisean ere aritu naiz asko, hemen bertan, herriko plazako frontoi honetan bertan jokatu dut asko bietara.

Emakumea izateagatik oztopoak gainditu behar izan dituzue, aipatzen zenuen, esate baterako, nerabezaroan utzi behar izan zenutela...

Bai, orain gauzak aldatzen ari dira; baina, garai hartan, 14 urte betetzen zeni-

tuenean mutilekin lehiatzeko ezberdintasun handiagoak aurkitzen genituen. Eta gurean, adibidez, bi neskatila besterik ez ginen, lehiatzeko neska gehiagorik ez zegoenez utzi behar izan genuen. Gaur egun jarraitzen ahal dute, lehiatzeko nahi adina daudelako.

Aurrerapausoak ematen ari dira, orduan?

Bai. Adibidez, aurtengo hirugarren emakumezko mastercup-a egin dugu dagoeneko. Pasa den urtean, esate baterako, 100 emakume bildu ginen txapelketan, asko dira! Gehienak Gipuzkoan egiten dira, hara iritsi eta horrenbesteko neska ikusita, ahoa bete hartzeko geratzen ginen. Geroz eta neskatila gehiago hasten dira esku-pilotan, helduagoak garenok gehiago jokatzeko animatzen dira. Gainera, gehiago izanda jarraitu dezaketela ikusten dute, eta horrek bultzatu egiten ditu. Ez zaie guri gertatzen zitzaguna gertatzen, lehen utzi behar izaten genuen eta orain ez.

Nolakoa izan zen kantxara itzultzea horrenbesteko urte pasa eta gero?

Ilusio handia eman zidan, berriz jokatzeko ahal nuela ikusteak. Nire buruari esan nion, zergatik ez? Oraindik badut denbora, Maite Ruiz de Larramendi finaleko txapeldunak 43 urte ditu, eta jokatzeko jarraitzen du, eta oso ongi gainera! Erretiratzeko eskatu diot, beraren aurka besteok ez daukagu zer egiterik eta!

Ezberdintasunik al dago mutilen eta nesken jokorekin artean?

Normalean mutilek indar gehiago dute, atzerago botatzen dute pilota. Neskak aurrean daukagu trebetasuna. Bestalde, beraiek pilota mistoarekin jokatzeko dute, gogorragoa, alegia. Baina hori ere aldatzen doa, orain badaukagu emakumeen arteko dilema bat, txikiagoak direnak pilota mistoarekin jokatzeko hasi direlako. Baina gure garaian goxuekin jokatzeko genuen, bigunagoa dena alegia, eta helduak garenontzat beranduegi da mistoarekin hasteko. Eskuak ez ditugu horretara ohituak. Orduan txapelketa mistoak antolatzen direnean, ezin dugu jokatu.

“Gutxinaka aurrera goaz, bi urte hauetan 13 urtetan ikusi ez dudana ikusten ari naiz, eta horrela jarraitzea espero dut”

Noiz hasi zinen esku pilotan jokatzeko eta zergatik?

Bost urte nituela, nire neba ikusten nuen jokatzeko, eta egun batean probatzea erabaki nuen. Hortik aurrera, egunero jolasten nuen, momentu oro. 6 urte betetzean, Zaramaga Pilota Elkartera sartu nintzen, eta oso gustura nengoenez, jarraitzea erabaki nuen.

Eta beti aritu zara txapelketetan?

Bai, beti mutilekin aritu naiz txapelketa eta partidu asko jokatzeko. Duela bi urte hasi nintzen neskekin partiduak jokatzeko, eta horrez geroztik, partidu eta txapelketa askotan ari naiz.

Neska izatea oztopoa izan da?

Orain arte nahiko ondo moldatu naiz. Klubarekin eta Arabako federazioarekin ez dut inolako arazorik izan, beti ni animatzen egon baitira topera. Egia da komentario txar pila entzun behar izan ditudala beti: neska izateagatik ez naizela ezertara iritsiko, ezin naizela esku pilotan jarraitu mutilek indar gehiago dutelako, urte batzuen inguruan pala modalitatera pasatu beharko naizela, besteak beste. Gogoan dut, eta ez dut inoiz ahaztuko mutiko bat klubez aldatu zela nirekin bikote jarri zutelako eta ez zuelako neska batekin jokatu nahi.

Aurten Gartzarongo txapelketan zaude, ezagutzen zenuen txapelketa hau?

Bai, duela urte batzuk nire nebak txapelketa honetan parte hartu zuelako eza-gutzen dut. Prestigiosko txapelketa da, zaharrenetako bat, eta horregatik ilusio handia ematen dit hemen jokatzeko. Gainera, pilota mistoarekin jokatuko dugunez, gogo handiagoak sortzen zaizkit.

Nola prestatu duzue zure burua?

Zenbat entrenatzen duzue?

Goiz batzuetan korrika egitera joaten naiz, eta ia beti frontoietan nago, ez bada partidak jokatzeko, besteak nola aritzen



diren aztertzen, entrenatzen, edo putxe batzuk jolasten lagunekin.

Ezagutzen dituzue zure lehiakideak?

Bai, azkenean nesken artean gutxi gara, eta gutxiago pilota mistoarekin jokatzeko dugunak. Lehiakide indartsuak direnez, partida bakoitzean dena eman beharko dudala badakit.

Lehenengoz jokatzeko dute neskek Gartzarongo txapelketan, gauza bera gertatu da San Ferminetako Iruñeko txapelketarekin, zer iruditzen zaizu? Aurrerapausoak ematen ari dira? Ala motelegi doaz?

Nire ustez, denbora oso gutxitan pauso handiak eman dira, oraindik materialaren inguruan pauso gehiago eman behar diren arren. Ikaragarria da nola ari den handitzen nesken garrantzia frontoian, urte hauetan. Gutxika aurrera goaz, bi urte hauetan 13 urtetan ikusi ez dudana ikusten ari naiz, eta horrela jarraitzea espero dut.

Hala ere, ez daude mutilen arteko horrenbesteko kategoria, uste duzue egunen batean mutilen esku pilota txapelketak bezalakoak izatea lortuko dugula?

Bai, azkenean neska oso gutxi gara, eta guztiok maila antzekoak garenez, ez dituzte kategoriak bereizten; baino niri oso puntu garrantzitsua iruditzen zait kategoriak bereizi beharra. Neska indartsu asko datoz, eta denbora behar da. Dena hasi berri da, eta urte batzuetan helburu hori lortuko dela uste dut.

San Ferminetako emakume txapelketan publiko dezente zegoen Labriten, nabaritu al duzue geroz eta jende gehiago joaten dela zuek ikustera?

Egia esanda, bai, jende asko animatzen da gure partidetara, eta pila eskertzen da. Jende horri esker, gu, pilotari neskok, bakarrik ez gaudela ikusi eta aurrera jarraitzeko beste arrazoi bat ematen digute.

Emahotsa proiektuan zaude zu, 20 emakume pilotariak osatzen duzue, zer moduz doa?

Ba oraingoz nahiko ondo doa, Emahotsari esker pilota mistoarekin jokatzeko duten beste neska batzuk ezagutu ditut. Emahotsaren aurretik, 5 neska besterik ez geunden, orain gehiago gaude. Helburuak? Ba, beno; neska talde bat osatzea, topagune baten antzera, eta material gogorrago bat erabiltzea.

Gartzarongo 34. pilota txapelketa uztailaren 22an hasi zen, eta azaroaren 10era arte iraungo du, partidak aste-bururo jokatzeko dira.

Umeen mailan: 52
Gaztetxoaren artean: 46
Helduen mailan: 52

Haurren mailan: 52
Gazteen artean: 40
Emakumeen mailan: 4

Oсотara 246 bikotek eman dute izena:

** emakumez osatutako 6 bikote daude guztira, bik umeen mailan jokatzeko baitute mutilen aurka

Urtebetetzeak



**ZORIONAK
XUXA**



**ZORIONAK
NERE**



**Zu hemen zaude,
AEK ere bai**

**Tú estás aquí,
AEK también**



EUSKARA-IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA

Ultzamako AEK

Maila guztiak · Todos los niveles

Guraso taldea 5/6 ordu astean

EGA azterketa prestatzeko ikastaroa

SAKONTZEN (arauak berrikusi, ohiko akatsak zuzendu...)

Taldea edo autoikaskuntza · Grupo o autoaprendizaje

Mintzakide egitasmoa (Mintzapraktika egiteko taldeak)

Izena eman irailaren 27a baino lehen

Matricularse antes del 27 de septiembre

Informazioa eta izena ematea · Información y matriculación

948 60 47 04 edo 607 622102

larraun@aek.eus

Ultzamako AEK euskaltegia · Larraintzar

DIRU-LAGUNTZAK / BECAS

**Iparraldeko Euskara Mankomunitateak diruz
lagundutako ikastaroak**



2018ko ekaina.

Gure alderdian, ekainean izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

ANUE

Etsain

Bidane Santesteban Artze, ekainaren 30ean jaio zen. Maximo eta Izaskunen alaba. *Legarreko borda.*




Bidane amarekin eta senideekin, Oier eta Aiorarekin

BASABURUA

Aizarotz

Hristianna Hristova Klisarska, ekainaren 6an jaio zen. Hristo eta Anaren alaba.

Ongi etorri jaio berriei eta zorionak beren gurasoiei!



Ana, Hristianna alaba jaioberriarekin

Ezkontzak:

Guk dakigula, ezkontzarik ez da izan hilabete honetan.

Heriotzak:

ULTZAMA

Arraitz

Maria Cristina Espelosin Olague, Martineko etxeakoandrea, ekainaren 2an hil zen.

Gure oroimenean izanen zara.



Cristina



NEUMÁTICOS BETELU

Juan Alonso Ortiz
 Tailer mugikorra
 Pneumatikoen aldaketa
 Zulatutako pneumatikoen konponketa

Erdiko karrika, 8A
Aizarotz (Bañaburua)

  info@neumaticosbetelu.es
646 47 41 66

-Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
 pneumatikoak konpontzera
 -Kostu gehigarriarik gabe kontsultatu prezioak
 -Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR

ELEKTRIZITATEA

 **629 31 53 32 - 722 766 835**

 **Lizaso**

 **karikolaregoitz@gmail.com**

DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA

TEL.: 678 623866

argapin@hotmail.com



ZIAURRITZ

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe



info@amezti.eus